



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSA OHARRA

Batzar Nagusiek Aurrekontuei aurkeztutako zuzenketa-eske parzialen eztabaidea itxi dabe, 3,78 milioi euroko zenbatekoa hartzen daben 17 zuzenketa-eske barri onartuta

Bilbon, 2013ko abenduaren 17an.

2014. urterako Bizkaiko Aurrekontuen Proiektuek Bizkaiko Batzar Nagusietako azken aurreko izapidea gaingitu dabe gaur, zuzenketa-eske parzialak eztabaidetako bigarren jardunaldia bukatu danean. Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak 17 zuzenketa-eske onartu ditu guztira programautako lau saioetan, eta horreei, atzo onartutako lauak gehitu behar jakez. Aurreikusita egoan moduan, EAJ-PNV, PSE-EE eta PP taldeen adostasunagaz, Gizarte Ekintza, Herri Lan eta Garraio eta Ekonomia Sustatzeko Sailaren aurrekontuetako aldaketek (Ogasuna eta Finantza Sailaren aurrekontuak ez dau aldaketarik izan), 3,78 milioi euroko balioa daukien aldaketak eragingo ditue sail horreetako aurrekontu partidetan. Aitatutako talde horreek atzera bota ditue EH Bilduk aurkeztutako 39 zuzenketa-eskeak.

Sailetako programak eta 2014ko Bizkaiko Aurrekontuen Foru Arauaren Testu Artikulaua, atzoko saioetan lortutako laguntza berberagaz onartu dira, hau da, Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) taldeko ordezkarien aldeko 6 boto; 4 abstentzino (PSE-EE-ren bi eta PP-ren beste bi); eta kontrako 3 boto (EH Bildu). Azken erespena osoko bilkurak onetsi beharko dau, bariku honetan, segurunez, eta bertan EAJ-PNV taldearen 11 zuzenketa-eske (horreetako 10, PP-k aurkeztutako hasierako proposamenen aurreko zuzenketa-eske transakzionalak) eta PSE taldearen 6 jasoko dira.

GIZARTE EKINTZA

Batzarretako jardunaldia, Gizarte Ekintzako Foru sailaren aurrekontuaren aurrean aurkeztutako zuzenketa-eskeak eztabaidatu dituan batzordeagaz hasi da. Saio horretan 24 zuzenketa-eske landu dira. Horreetatik 6 EAJ-PNV taldeak aurkeztutakoak ziran (horreetako 5, PP-k aurkeztutako hasierako proposamenen aurreko zuzenketa-eske transakzionalak) eta 5 PSE-EE taldearenak. Zuzenketa horreek osoko bilkurara eroango dan azkenengo erespenean jasoko dira, batzarretako hiru taldeen laguntzeari esker.

Jeltzaleen eta popularren artean adostutakoetan, Pilar Ardanzak zuzentzen dauen sailaren aurrekontuan partida barri bi sartzen dira. Horreetako batek 10.000 euroko zenbatekoa jasoko dau, Alzheimerra edo zahartzaroko demenzia daukien pertsonak lokalizetako tresnak eskuratu ahal izateko, eta besteak 100.000 euro jasoko ditu, zeliakoen alkartera bideratutakoak, pertsona horreek daukien ez ohiko gastuari aurre egin ahal izateko. EAJ-PNV eta PP taldeen arteko hitzarmena dala eta, 50.000 euro gehiago bideratuko dira hiru kontzeptutarako: estupefazianteak kontsumiduten dituen gazteen jokaera arazoei arretea eskintzera bideratutako programa, Usoa Lantegia izeneko tailerra, une honetan indarrean dagoan hitzarmenaren baldintzak zabaldu ahal izateko, eta bizitza independenteari arretea eskintzeko zerbitzua, FEKOORren bitartez.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Sozialistek, euren aldetik, 480.000 euroko diru-laguntzea sartzea lortu dabe Lurraldeko kontuetan, Gurutzetan (Barakaldo) Bakea izeneko eguneko zentroa martxan jarteko, eta baita Down Sindromea fundazioari bideratutako diru-laguntzea 150.000 eurotan handitzea be. Beste 50.000 euro egingo dau gora laguntza pertsonalerako prestazinoen partideak, eta 320.000 euroko ez ohiko partidea erreserbauko da garapenari laguntzeko proiektuetarako. Holan, programa hori, 4,4 milioi eurora arte haziko da.

LANTEGIEN ARTEKO ERREPIDEAK ETA AUTOPISTEN ERABILTZAILAK

Herri Lan eta Garraioetako aurrekontuari aurkeztutako zuzenketa-eske parzialak eztabaidatu dituan saioan, batzordeak hiru zuzenketa-eskeri emon deutsee argi berdea, aurkeztu diran zortzietatik. Sozialistek milioi bat euroko ez ohiko partidea sartu dabe Lutxanako lantegien arteko errepiderako “BEC bizibarritzeko eta Burtzeñako enpresa parkearen etorkizuneko garapenerako”, Joaquín Colmenero batzordekide sozialistak defendidu dauenez.

EAJ-PNV taldeak zuzenketa-eske transakzional bi aurkeztu ditu PP-k aurkeztutako ekimen bi dirala eta, eta azkenean onartu egin dira. Horreen bitartez, 900.000 euro bideratuko dira AP-68 eta AP-8 autopistetako erabiltzaileei diru-laguntzak emoteko, garraio astuneko erabiltzaileei zein partikularrei. Neurri horren bidez, “errepide horreen gatibu diran erabiltzaileen bazterkeria” saihestu ahal izango da, PP taldeko Jesús Isasik adierazo dauenez. EH Bildu taldeak kritikau dauenez, kopuru hori, popularren hasieran proposautakoa baino 500.000 euro txikiagoa da.

EAJ-PNV eta PP taldeen artean adostutako beste zuzenketa-eskeak 50.000 euroko partidea bideratuko dau, gazteen garraio publikoa diruz laguntzeko, Barik txartelaren bitartez. Isasik adierazo dauenez, “kopuru hori zabaldu ahal izango da”. EH Bildu taldeko Aitor Torrek zuzenketa-eskea kritikau dau, “paper bustia” baino ez dala esanez, “hasieran milioi eurokoa zan” kopuru horregaz oso gitxi egin ahal izango dalako. Koalizino abertzaleak 5 milioi euroko zuzkidurea jasoten dauen zuzenketa-eskea aurkeztu dau “garraio publikoaren erabiltzailearen fidelizazioa bermatzeko”, garraio publikoaren erabilera handiagoan oinarritutako beherapen “orokorren” bitartez. EAJ-PNV eta PP taldeek ekimenaren kontra egin dabe, euren ustez, sistemeak behar beste beherapen eskintzen deutseelako hainbat talderi.

LAGUNTZAK MERKATARITZA SEKTOREARENTZAT

Ekonomia Sustatzeko sailari bideratutako hornidura ekonomikoari buruzko osteko batzordean, taldeek 9 zuzenketa-eskeri buruzko eretxia emon dabe. Batzordeak, hasieran popularren eta jeltzaleen artean adostutako hiruak onartu ditu. Zuzenketa horreetan, merkataritza sektoreari emon beharreko laguntzea 400.000 euro gehiagotan handitzea aurreikusten da, 2014ko udabarritik aurrera “bonodenda” kanpaina bultzatzeko, eta baita merkatarien alkaterei laguntzak emotea be. Ganera, aurrekontuetara 50.000 euro gehiago bideratzea onartu da, Bizkaiko turismo txartela martxan jarteko. Beste hazkunde bat, 120.000 eurokoa, autonomoei laguntza emoteko planera bideratuko da.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

ALDAKETA BARIK OGASUN ETA FINANTZA SAILEAN

Zuzenketa-eske parzialen azterketea, eztabaidea eta bozketea dakarren izapideari bukaerea emoteko, Ogasun eta Finantza sailaren aurrekontuari aurkeztutako aldaketak aztertu dira. Testu hori aldaketa barik helduko da osoko bilkurara, izan be, aurkeztutako 6 zuzenketa-eskeak –guztiak EH Bilduk aurkeztutakoak– ez ditue onartu generako taldeek. Testu Artikulauari jagokonez, azkenengo erespenak xedapen gehigarri bi jasoko ditu, EAJ-PNV taldeak proponidutakoak, Foru Araua, 2014ko ekitaldian arlo fiskalean egongo diran arauzko aldaketetara egokitzeke.

AZKENENGO IZAPIDEA

Bizkaiko kontu publikoen behin betiko onespena bariku honetan, abenduaren 20an, bukatuko da, seguruenez, Gernikako Batzar Etxean egingo dan osoko bilkuran. Bertan, Ekonomia eta Ogasuneko batzorde horreetan taldeek erreserbautako zuzenketa-eskeak aztertuko dira. EH Bilduk 70 zuzenketa-eske eroango ditu osoko bilkura horretara.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

Las Juntas Generales cierran el debate de las enmiendas parciales a los Presupuestos con 17 nuevas enmiendas aceptadas por un importe total de 3,78 millones

Bilbao, a 17 de diciembre de 2013.

El Proyecto de Presupuestos de Bizkaia para el año 2014 ha pasado hoy su penúltimo trámite parlamentario en las Juntas Generales de Bizkaia, con la finalización de la segunda jornada de debate de las enmiendas parciales. La Comisión de Economía y Hacienda ha aprobado en las cuatro sesiones programadas un total de 17 enmiendas, que se suman a las cuatro aceptadas ayer. Con la esperada conformidad de los grupos junteros de PNV, PSE-EE y PP, las modificaciones en los presupuestos de Acción Social, Obras Públicas y Transportes, y Promoción Económica (Hacienda y Finanzas no sufre alteraciones), suponen variaciones en las partidas presupuestarias de estos departamentos por un valor total de 3,78 millones de euros. Estas tres formaciones han rechazado las 39 enmiendas de EH Bildu.

Los programas departamentales y el Texto Articulado de la Norma Foral de Presupuestos de Bizkaia de 2014, han sido aprobados con el mismo apoyo que el obtenido en las sesiones de ayer, es decir, gracias a los 6 votos a favor de los junteros jeltzales, la abstención de los 4 junteros que suman socialistas y populares, y los 3 votos en contra de los representantes de EH Bildu. El dictamen final que tendrá que ser ratificado por el pleno, previsiblemente este viernes, incorporará 11 enmiendas del PNV (10 de ellas transaccionales a propuestas iniciales del PP) y 6 del PSE.

ACCIÓN SOCIAL

La jornada parlamentaria ha comenzado con la comisión que debatía las enmiendas presentadas al presupuesto del área foral de Acción Social. En esta sesión, se han tratado un total de 24 enmiendas. De ellas, 6 correspondían al PNV (5 transaccionales a iniciativas previas del PP) y 5 del PSE-EE, que serán incluidas en el dictamen final que se llevará al pleno, gracias al apoyo de los tres grupos junteros.

Las acordadas entre jeltzales y populares incluyen dos nuevas partidas en el presupuesto del departamento que dirige Pilar Ardanza. Una, suma un importe de 10.000 euros para facilitar la adquisición de instrumentos de localización para personas con Alzheimer o demencia senil y, otra, incluye un montante de 100.000 euros, destinado a la asociación de celíacos, para hacer frente al gasto extraordinario de alimentos para estas personas. El pacto entre PNV y PP incorpora también un aumento presupuestario de 50.000 euros para cada uno de los siguientes conceptos: el programa destinado a la atención de los problemas de conducta de jóvenes consumidores de estupefacientes, el taller Usoa Lantegia con la intención de ampliar las condiciones del convenio, y el servicio de atención a la vida independiente a través de FEKOOR.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

Por su parte, los socialistas han logrado introducir en las cuentas del Territorio una subvención de 480.000 euros para la puesta en marcha del centro de día de la Paz en Cruces (Barakaldo) y un incremento de la subvención para la fundación Síndrome de Down de 150.000 euros. Otros 50.000 euros aumentarán la partida de las prestaciones para la asistencia personal y se reservará otro "extra" de 320.000 euros para proyectos de cooperación al desarrollo, programa que crecerá hasta situarse en los 4,4 millones de euros.

CARRETERA INTERFÁBRICAS Y USUARIOS DE AUTOPISTAS

En la sesión que debatía las enmiendas parciales al presupuesto de Obras Públicas y Transportes, la comisión ha dado luz verde a tres enmiendas, de un total de ocho. Los socialistas han introducido una partida extra de 1 millón de euros para la carretera Interfábricas de Lutxana (Barakaldo) que sirva "para rehabilitar el BEC y para el futuro desarrollo del parque empresarial de Burceña", ha defendido el apoderado socialista Joaquín Colmenero.

El PNV ha presentado dos enmiendas transaccionales a sendas iniciativas del PP, que finalmente han sido aprobadas, para dotar con 900.000 euros las subvenciones a usuarios de la AP-68 y AP-8, tanto en transporte pesado como a particulares. Servirá para evitar "la discriminación de los usuarios cautivos" de estas carreteras, según Jesús Isasi, del PP. EH Bildu ha criticado que esta dotación supone una reducción de 500.000 euros con respecto a la propuesta original de los populares.

La otra enmienda acordada entre PNV y PP conlleva incluir una partida de 50.000 euros, "que podrá ser ampliada", según Isasi, para subvencionar el transporte público de los jóvenes, a través de la tarjeta Barik. Aitor Torre, de EH Bildu, ha criticado que esta enmienda es "papel mojado", ya que "poco" se podrá hacer con una cantidad que "inicialmente era de un millón de euros". La coalición abertzale ha presentado una enmienda con una dotación de 5 millones de euros para "garantizar la fidelización del usuario del transporte público" mediante rebajas "generales" en función del mayor uso de los modos públicos. La iniciativa ha sido rechazada por PNV y PP, que consideran que el sistema ya ofrece descuentos a diferentes colectivos.

AYUDAS AL SECTOR COMERCIAL

En la comisión posterior sobre las consignaciones económicas al departamento de Promoción Económica, los grupos se han pronunciado sobre un total de 9 enmiendas. La Comisión ha aprobado las tres que fueron acordadas inicialmente por populares y jeltzales. Se refieren a la inclusión de un incremento de las ayudas al sector comercial de 400.000 euros para impulsar la campaña "bonodenda", a partir de la primavera de 2014, y ayudas a asociaciones de comerciantes, así como a un aumento de la dotación presupuestaria de 50.000 euros para la puesta en marcha de la tarjeta turística de Bizkaia, y otro incremento, en este caso de 120.000 euros, para el plan de apoyo a autónomos.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

SIN CAMBIOS EN HACIENDA Y FINANZAS

El trámite parlamentario que suponía el estudio, debate y votación de las enmiendas parciales ha concluido con el examen de las modificaciones presentadas respecto al presupuesto foral de Hacienda y Finanzas, texto que irá al pleno sin modificaciones, ya que las 6 enmiendas presentadas -todas de EH Bildu-, han sido rechazadas por el resto de grupos. En cuanto al Texto Articulado, el dictamen final incorporará dos disposiciones adicionales a propuesta del PNV para ajustar la Norma Foral a los cambios normativos en materia fiscal que entrarán en vigor para el ejercicio 2014.

ULTIMO TRÁMITE

La aprobación definitiva de las cuentas públicas de Bizkaia, finalizará probablemente este próximo viernes, 20 de diciembre, en un pleno en la Casa de Juntas de Gernika donde se analizarán las enmiendas reservadas por los grupos junteros en estas comisiones de Economía y Hacienda. EH Bildu llevará a esta sesión plenaria 70 enmiendas.